

# Aretxabaletako

Ibilbide historikoa

06



aisialde euskara



kultura

**loramendi**



# Kurtzebarri aldeko aitzetatik

Ibilbidearen mapa 10. orrialdean aurkituko duzu, bidean errezago aurki dezazun.



01

## Ibilbidie

**Kurtzebarri** inguruan, **Zaraia** aldetik egingo dugun ibilaldi honen asmoa makina bat txoko izen eta guzti ezagutaraztea da. Norbaitek noizbait zerbaitegatik jarritako izenak, guregana ahoz aho ailegatu direnak, eta guk jaso gura izan ditugunak.

Horretarako, **Irabanzelain** hasi eta gorantz egingo dugu, leku hauetatik aurrera: **Bideburu**, Arientzako **elixondoa**, **Itturriko erromarie**, **Intxaurbe**, **Altzine**, **Karoiondoa**, **Zaraixabe**, **Irixemendi**, **Oilaskogaine**, **Urrebaso**, **Tontorra**, **Sagarmouko hatxak**, **Hatxbentaneta**, **Santukolta**, **Bekoki haundixe**, **Obispo hatxa**, **Narruko hatxa**, **Kurtzebarriko ziherra**, **Udelatz**, **Kargalekue**, **Ziuntza**, **Zaraiola**, **Harraskabarri**, **Sanjuaniturri**, **Insiniz**, **Egu hatxa**, **Goiko txabolie**, **Kabarrixa**, **Arditurri**, **Neberaondue**, **Aretxu**, eta **Zailuze**. Bukatzeko, **Murgitik** behera **Iraban** aldera egingo dugu berriro.

Bidean goazela ikusiko ditugun beste hainbeste lekuren izenak ere aitatuko ditugu, eta bertan pasatutako kontu batzuk ere ekarriko ditugu gogora. Ibilbidea aldapatsua da, haitz tartetatik eta bideetatik kanpo ere ibiliko gara leku batzuetan, eta, hortaz, kontuz ibili beharrekoa da.





Arientzan, artzainak **Sardaneta, Garaikue, Ardantza** eta **Peruena** izan dira; **Intxaurbek** ere bazeukan bere txabola, baina gure akorduan, behintzat, **Zuatzu-bixkar**koek erabiltzen zuten.

Gora, txaboletara, ardiekin maiatzaren 1ean joaten ziren, eta Santixao egunera arte ardiak bertan batzen zituzten egunero. Gero, ardiok antzutu, eta San Migel inguruan, etxe ingurura ekartzen ziren, negua pasatzera.

Arratsaldeko laurak aldera, edo Beroako sirena entzundakoan bestela, etxeko lanak utzi eta mutikoa gehienetan, txabola aldera igo, **Kurtzebarri** aldeko aldapa eta haitzetatik ardiak eskortara pila, eta batu egiten zituzten. Gaua han pasatzen zuen artzainak, txabola barruan, kamainan lo eginez, eta ardiak eskorta eta txabola inguruan.

Goizean berriro ardiak jeitzi eta mendi aldera bidali ostean, esne marmita eskuetan hartu (bi batualdietako esnearekin), eta etxera bueltatzen ziren. Arratsaldean berriro txabolara bueltatzeko.

***“Hor, hegitik, arratsaldetan hiru artalde jaisten ziren: Zuatzu bixkarkoa, Peruena eta Ardantzakoa. Garaikoak Tontor aldean moldatzen ziren. Txistu hotsak ondo entzuten ziren”.***



• Goiko txabola



• Aretxu txabola

## Tontorreko txabola



**Garaiko** txabola zen, etxe horretan jaiotakoa zen *Mariano Okinak* jaso zuen. **Urkuluko** eta **Barrenzubixetako** zubiak ere berak egindakoak ziren.

Hargina izanda, heriotza ere harriari lotuta etorri zitzaion: 82 urte zituela, **Elixabarrixa** aldera, **Ametzura** joan zen bere iloba gaztearekin iratan. Makurtuta igitaiarekin ira mozten ari zela, hara non datorren goitik behera harri bola bat, baten batek mugituta edo. *Kontuz, kontuz!* deitu zion ilobak; Mariano zutitu zen zer pasatzen zen ikusteko, eta orduantxe harri handi horrek buruan kolpea eman eta seko itxi zuen.

Tontorreko txabola baino 50 bat metro beheratxoago, badaude Mendiolako **Elixakuen** txabola izandakoaren arrastoak.

Gau batean, Garaiko txabolan artzaina lotan zegoela, zarata handi batek iratzartu zuen; **Santukolta** izeneko haitzetik askatutako harrizarra bueltaka etorri eta txabola bete betean harrapatu zuen. Teilatutik sartu zen eta kalte handiak eragin zituen. Ez zuen inor harrapatu barruan. Hurrengo egunetan auzoko mutikoak harri handi horrek bere etorreran utzitako arrastoak ikustera joan ziren; salto handiak emanez etorri omen zen. Txabola hori ez zen berriro jaso.





Arientzako goi aldean dago, eta bertan zegoen, izen bereko baserri etxea. Arientzak mendi aldean eduki zuen baserri etxea bertan zegoen. 1896ra arte bizi izan zen bertan jendea; gerora, jausi egin zen, eta hormetako harriak beste txabolaren bat jasotzeko eta Arientzako bidean harriak ipintzeko erabili ziren. Bertan bizi izan ziren azkenak “*Martin Kabarrixa*” eta familiakoak izan ziren. Martin Ignazio Zaldua, jaiotzez Zumarragakoa. Kabarrixan alargunduta bizi zen Maria Rosa Arrietarekin ezkondu zen, eta berarekin 5 seme-alaba eduki zituen.



• Martin kabarrixa

Hamaika pasarte kontatu eta entzun izan dituzte Arientzan Martini lotutakoak; izan ere, bizi eta lapur fama zuen, baina denek pentsatzen dute beharrak eragindakoa zela, Kabarrixan ez baitzegoen urte askotan soroko ezer jasotzeko modurik.

32 urtetan bizi izan zen **Kabarrixan** eta kontaktzen da errentak ordaindu ezinik edo, enbor handi bat sutan itxita—keak luzaroan iraun zezan—, familia hartuta, Bizkaia aldera ospa egin zuela isilean. 1986az geroztik, Arientzan, Agorreko andramaixetan, gogoan izaten dute Martin Kabarrixa, eta derrigorrezko gonbidatua izaten da. Horretarako bertsoak Arantzazu Loidik jarri zituen, “bizkaiko txerriaren” doinuarekin kantatzen dute urtero.

#### AUZOAK MARTINI:

*Arientzak badauko zure entzutie  
eta jaixetan dozu gure gonbitie.  
Entzuizu Kabarrixa basoko dukie  
Gure badozu gure sorrotik jatie.  
Andramaixetan izan gure alkatie*

#### MARTINEK AUZOARI:


*Hiru egun tantaixen pasau eta gero,  
Txokolatie besteik ez ote dau gero?.*  
*Sasoi baten, hemendik hamaika jenero  
Eruendakue naz, nahiz edur, nahiz bero,  
Holan ni ezingo nahiz etorri urtero.*


*Hemengo tanborrada bonba ta diana,  
Zaratarako behintzat badao afana,  
Tantai puntatik, majo ikusi dut dena  
Hurrenguen be ba dau holako programa,  
Abisuaz basora etorri nigana*



# Ibilbidearenko TOPONIMIA

Ibilbidearen aurkituko ditugun lekuen izenak.







**Kargalekutik Zaraiola** aldera goazela, erdi bidean dagoen sakonunea da **Ziuntza**. Ardiek gustukoa duten tokia, eguzkia eta larre fina dagoena eta baita ura ere. Gertu dago **Malben koba**, Bedoñako **Malbe** baserriko artzainaren lo lekua. Gizon polemikoa izan zen, eta horregatik edo, bere izena daukan liburu bat argitaratu zuten Arrasaten, non bere bizitzako istorio batzuk kontatzen diren.

"Malbe, Alejandro Iturbe Aranaren bizitza", Marixol Iparragirre eta Joseba Garaitonandiak idatzitakoa. Bertan esaten denez, Bedoña Aretxabaleta zen garaikoa dugu "Malbe" 1888-1967. Gizon altua, indartsua eta terkoa ei zen, "aguas y pastos libres" zen bere leloa. Inguruko artalde handiena berea izanda, larre toki asko behar, eta ezbai askotan sartuta ibili zen.

Kurtzebarrak **Ugastei** aldera daukan aldapa animaliek gustukoa dute; ura ere beharrezkoa dute, eta horregatik, arlabanetara ateratzen diren ur-negarrak aprobetxatzeko, XVIII. mendean artzainek eskatuta, Aretxabaletako udalak askatxo batzuk egin zituen harkaitza landuta. Bertako artzainek haitzak landuz makina bat askatxo egin zituzten: **Ziuntza**, **Harraskabarri**, eta **Sanjuaniturri** ibilaldi honetan ikusiko ditugu, baina bada beste bat **Gaztanbidean** goazela **Erdiko-esatearean** azpian.



Gizakiak egindako zulutzar galanta da Arientzako nebera; 10 metro sakon eta borobil perfektuan 6 metroko zabalera daukana. Garai batean, teilatua ere bazeukan, eta atea gainaldera. Kontra-kontratik pasatzen zitzaion Kabarrixarako bidea.

Bertan elurra pilatzen zen, udara arte iraun zezan. Elurteak aprobetxatzen ziren elur zuloa betetzeko, auzoaren laguntza eskatuta: *"ointxe bete biher jok, eta etorri aguro"*. Elur bola handiak bueltaka eginaz, atetik barrura, zuloa botatzen zituen batzuek; barruan beste batzuek zabaldu eta zapaldu egiten zuten aldiko kapa bat, gero orbel edo irarekin tapatu eta gainetik beste kapa bat; horrela, bete arte.



Eta gero bainuetxean eta inguruko jaietan freskagarri moduan erabiltzen zuten. Gogoan daukate mangito zuriak jantzitako andrea, bere astoarekin, jaietan ur freskoa saltzen:

***“Ure, ure, zenbat gure. Baso haundixe txakur haundixe, baso txikixe txakur txikixe”.***



07

## Hiru pagoeta

Ibilaldi hau ainubetik doa haitz gainak harrapatu arte, hau da, eguzkiak jotzen ez duen lekutik. Izan ere, ipar aldera begira egonda, negu aldean eguzkia Kurtzebarriren atzealdetik pasatzen da, ia egun guztian gerizpetan geldituz. Hilabete gerizpean egon eta gero errege egunez heltzen da eguzkia berriro Intxaurbera. Horrela dio esaera zaharrak: “Errege egunean, Intxaurbeko teilatuan katua eguzkitan ikusten da.” Badira beste esaera batzuk ere eguzkiarekin lotuta: “San Antonio egunerako Aretxu eguzkiak jotzen du”, “ San Bizentetarako eguzkia Irixemendin, eta Santagedatarako Kabarrixan”.

Hiru Pagoetan pago bakarra gelditzen da zutik, urrunetik ikusten da bera. Lau urte inguru dira bigarrena jauzi zela. Oraindik hantxe dago usteltzen eta hirugarrena zutik ezagutu duenik jada ez dago gure artean, baina bai erretako enbor zahar baten gomuta duenik.

Bertaraino, **Nardaraino**, joaten ziren belarretan idi eta guzti. Bertan oraingo antzera albitz belar galantak egiten ziren, eguzki gutxiko tokia izanda ardiek bertako jana ez dutelako gogoko, belar hobeak moztu arte behintzat. Albitz luze horiek eta bertako aldapa galanta, ezin hobeak dira goitik behera laban beran jaisteko, horixe egiten zuten artzainek arditara joaten zirenean. Don Simon, Arientzako azken abadea ere, mutikoren batzuk lagun hartuta, alde horretara urrak biltzera joaten zen eta etxerako ordua iristean, lurrean jarri, mutikoak sotana gainean hartu, eta goitik behera etortzen ziren ipurdi gainean laban beran. Neska mutikoek ere horrelaxe egiten zuten mendi aldetik buelta bat emandakoan etxerako bidea eta gaur egun ere Kurtzebarriko egunean horrela egiten da.



# Ibilbidearen mapa

Ibilbidearen mapa eta interneteko lotura.



## Aretxabaletako

ibilbide historikoa 06

Luzera: 13 km

Interneteko lotura:

<http://es.wikiloc.com/wikiloc/view.do?id=6572667>



Urkulu

Korueta

Larrino

Aozaratza

Oro

Bolinaga

Aretxabaleta



# Aretxabaletako

## Ibilbide historikoa 06

### Bibliografia:

- "Malbe: Alejandro Iturbe Aranaren bizitza."  
Marixol Iparragirre eta Goseba Garitaonaindia, 2008.

### Eskerrak:

- **Julen Abasolo**
- **Aretxabaletako Udala**

